

187 eredia ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoak

A) Euskarri magnetikoen ezaugarriak

Eredua aurkezteko ordenagailuz zuzenean irakur daitezkeen euskarriek beherago adierazitako ezaugarriak izan behar dituzte. Ereduaren bidez, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzekin egindako eragiketei buruzko aitorten informatiboa eta inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortzen diren errentei edo ondare-irabaziei dagokienez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zioz aplikatu beharreko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena (187 eredia) aurkezten dira. Hona hemen ezaugarriak:

DVD-R edo DVD+R

- Mota: DVD-R edo DVD+R.
- Edukiera: 4,7 GB, gehienez.
- UDF artxiboen sistema.
- Alde bakarrekoa eta geruza bakarrekoa.

CD-R

- Mota: CD-R.
- Edukiera: 700 MB, gehienez.

Fitxategiaren edukia CD-R batean sartzen ez bada, DVD-R edo DVD+R bat erabiliko da.

Aitortzaileak eskura duen ekipoaren ezaugarriak bat ez badatoz eskatutako zehaztapen teknikoekin, idazkia bidali behar du Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Identifikazio eta Euskarrien Atalera (Kaputxinoen bidea, 2 eta 4; 48013-Bilbo); haren bidez azalduko du zer ezaugarri tekniko dituen bere ekipoak eta zenbat erregistro aurkeztu nahi duen, zehaztu diren ezaugarri teknikoekin bateragarria den sistemaren bat aurkitzeko (halakorik badago).

B) Diseinu logikoak

Erregistroen deskripzioa

Aitortzaile bakoitzarentzat bi erregistro mota egongo dira; lehenengo posizioak bereizten ditu erregistrook, honako irizpide hauen arabera:



1 mota: Aitortzailearen erregistroa. Identifikazio-datuak eta aitortenaren laburpena. Foru-agindu honen eranskinean eta atal hauetan aurrerago adieraziko diren erregistroetatik 1 motako erregistroaren diseinua.

2 mota: Aitortuaren erregistroa. Foru-agindu honen eranskinean eta atal hauetan aurrerago adieraziko diren erregistroetatik 2 motako erregistroaren diseinua.

Aurkezpenaren hurrenkera erregistro motaren arabera da. 1 motako erregistro bakarra egongo da; 2 motako erregistroaren kasuan, berriz, aitorteneko eragiketak beste erregistro egongo dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira, eta eskuinean zuriuneak utzi; letra larriz idatzi behar da, eta ezin da erabili karaktere berezirik ez bokal azentudunik.

Hizkuntzaren karaktere berezien kasuan, ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Hala, "Ñ" letra ASCII 209 (Hex. D1) izango da, eta "Ç" (ze hautsi maiuskula), ASCII 199 (Hex. C7).

Zenbakizko eremu guztiak eskuinean lerrokatu eta ezkerrean zeroz beteta aurkeztu behar dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izan behar dute edukia, eremuaren deskripzioan besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, zenbakizko eremuetan zeroak jarri behar dira; alfanumeriko eta alfabetikoetan, berriz, zuriuneak.



187 EREDUA

A. 1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA.

(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIPZIOA)

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: «1».
2-4	Zenbakizkoa	AITORPENAREN EREDUA Finkoa: 187.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA Aitorpenaren zerga-ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da; kontrol-karakterea azken posizioan jarri behar da, eta ezkerreko posizioetan, zeroak idatzi. Hori guztia identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko betebeharrak arautzen dituen araudian ezarritako erregelekin bat etorritz.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IZENA Erakundearen izena osorik jarri behar da, anagramarik gabe. Eremu honetan, inolaz ere ezin da jarri merkataritzako izenik.
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA Gako hauekariko bat jarri behar da: «C»: informazioa CD-R, DVD-R edo DVD+R batean aurkezten bada. «T»: telematikoki aurkezten bada.



59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu honetan azpiero bi daude: 59-67 TELEFONOA. 9 posizioko zenbakizko eremua. 68-107 ABIZENAK ETA IZENA. Honela idatzi behar da: lehen abizena, tarte bat, bigarren abizena, tarte bat, eta izen osoa, hurrenkera horretan nahitaez.
108-120	Zenbakizkoa	ZEROAK
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA Bigarren aitorpen bat edo hurrengo beste bat aurkeztu beharko balitz, eremu hauetako bat bete beharko litzateke, nahitaez: 121 AITORPEN OSAGARRIA: «C» jarri behar da, baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia bada, aurretik aurkeztu den ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu beharrekoak izan arren, aitorpen horretan jaso gabe geratu diren aitortuaren erregistroak sartzea. 122 ORDEZKO AITORPENA: «S» jarri behar da, baldin eta aitorpenaren helburua bada ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat deuseztatzea eta erabat ordezkatzeta, aitorpen horretan datu zehaztugabeak edo okerrak sartu direlako. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakarra ordezkatzeko dezake.
123-135	Zenbakizkoa	ZEROAK
136-144	Zenbakizkoa	ERAGIKETAK, GUZTIRA Aitortutako erregistro guztien kopurua jarriko da (2 motako erregistroen kopurua).
145-159	Zenbakizkoa	ESKURAKETA GUZTIEN ZENBATEKOA Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea adierazten duten akzioak edo partaidetzak eskuratzeko



eragiketen zenbateko guztien batura jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi beharko dira.

Eremu honetan azpiero bi daude:

145-157. Zenbakizkoa. ZATI OSOA: eskuraketa guztien baturaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

158-159. Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: eskuraketa guztien baturaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

160-174

Zenbakizkoa

BESTERENTZE GUZTIEN ZENBATEKOA

Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea adierazten duten akzioak edo partaidetzak besterentzeko eta sozietate edo entitateen funts propioen partaidetza adierazten duten baloreetatik datozen harpidetza-eskubideak saltzeko eragiketen zenbateko guztien batura jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi beharko dira.

Eremu honetan azpiero bi daude:

160-172. Zenbakizkoa. ZATI OSOA: Besterentze guztien baturaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

173-174. Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: Besterentze guztien baturaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

175-189

Zenbakizkoa

ATXIKIPEN ETA KONTURAKO SARRERA GUZTIEN ZENBATEKOA

Atxikipen edo konturako sarreraren eragiketen zenbateko guztien batura jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.

Zenbatekoak eurotan adierazi beharko dira.

Eremu honetan azpiero bi daude:



175-187. Zenbakizkoa. ZATI OSOA: atxikipen eta konturako sarrera guztien baturaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

188-189. Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: atxikipen eta konturako sarrera guztien baturaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

190-500

ZURIUNEAK

*Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.

*Edukirik gabeko zenbakizko eremuak zeroz bete behar dira.

*Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak/alfabetikoak zuriunez bete behar dira.

*Zenbakizko eremu guztiak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.

*Eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira, eta eskuinaldea zuriunez bete. Letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik azaldu ezean.



B. 2 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTUAREN ERREGISTROA.

(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIPZIOA)

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: 2.
2-4	Zenbakizkoa	AITORPENAREN EREDUA Finkoa: 187.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA 1 motako erregistroko posizio beretan dagoena jarri behar da.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ 1 motako erregistroko posizio beretan dagoena jarri behar da.
18-26	Alfanumerikoa	AITORTUAREN IFZ Oro har, aitortuaren identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da, identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko betebeharrak arautzen dituen araudian ezarritako erregelekin bat etorriz. Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da, kontrol-karakterea azken posizioan jarri behar da, eta ezkerreko posizioetan zeroak jarri behar dira.
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ Aitortua 14 urtetik beherakoa bada, eremu honetan adingabe horren legezko ordezkari duen pertsonaren (aita, ama edo tutorea) identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da, identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko betebeharrak arautzen dituen araudian ezarritako erregelekin bat etorriz. Gainerako kasuetan, eremu honetako edukia zurienez bete behar da.
36-75	Alfanumerikoa	AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIJATEAREN IZENA



76-80

Alfanumerikoa

**PROBINTZIAREN EDO LURRALDE
HISTORIKOAREN/HERRIALDEAREN KODEA**

76-77 PROBINTZIAREN EDO LURRALDE HISTORIKOAREN
KODEA: Zenbakizko eremua.

Bazkide edo partaide den pertsona edo entitatearen egoitza
fiskala jarriko da.

Egoiliarren kasuan, aitortuaren probintzia edo lurralde
historikoari dagozkion 2 digitu jarriko dira: «48», kasu guztietan.

Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren kasuan, «99»
jarri behar da.

78-80 HERRIALDEAREN KODEA: Eremu alfabetikoa.

Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren kasuan,
aitortuaren herrialde edo lurraldearen kodearen bi karaktere
alfabetikoak jarri behar dira eremu honetan; horretarako,
herrialde eta lurraldeetarako indarrean dauden kode
alfabetikoak erabiliko dira.

Gainerako kasuetan, hutsik utzi behar da.

81

Alfabetikoa

BAZKIDE EDO PARTAIDE MOTA

Pertsona edo entitatea zer bazkide edo partaide mota den
jarriko da, balio hauen arabera:

R: Establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen
dituzten egoiliarrek eta ez-egoiliarrek.

N: Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten
ez-egoiliarrek.

E: Espainiako egoiliarrek diren eta Ez-egoiliarren Errentaren
gaineko Zergaren zergadunak diren pertsona fisikoak, Pertsona



Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 3. artikuluko 5. zenbakian adierazten direnak.

C: Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatu eta beren bezeroen kontura jarduten duten entitateak, atzerriko egoiliarrak direnak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 21. artikuluan aipatuak.

82 Alfabetikoa

BAZKIDEAREN EDO PARTAIDEAREN IZAERA

Bazkide edo partaidea den pertsona edo erakundearen izaera jarriko da, balio hauen arabera:

F: Pertsona fisikoa

J: Pertsona juridikoa

E: Errentak eratzikitzeko araubidean dagoen entitatea.

83-91 Alfamerikoa

FUNTSAREN EDO SOZIETATEAREN IDENTIFIKAZIOA

Inbertsio kolektiboko erakundearen edo dagokion sozietatearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da, tributu-administrazioak emana.

Identifikazio fiskalaren zenbakirik gabeko funts edo sozietateen kasuan, «ZXX» gakoak jarriko da. «XX» inbertsio kolektiboko erakundea edo sozietatea eratuta dagoen herrialdeari edo lurraldeari dagozkion bi karaktere alfabetikoak izango dira; horretarako, herrialde eta lurraldeetarako indarrean dauden kode alfabetikoak erabiliko dira.

92-103 Alfamerikoa

ISIN KODEA

Aitortutako eragiketari buruzko baloreek ISN kode bat esleituta badaukate (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari buruzko uztailaren 28ko 1/2010 Arau Teknikoaren arabera), jarri egin beharko da kode hori.

Inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, inbertsio kolektiboko erakundearen akzio edo partaidetzen ISIN kodea jarri behar da, edo haien konpartimentu edo mota edo seriearena.

104 Alfabetikoa

ERAGIKETA-MOTA



Eragiketa mota jarri beharko da, balio hauen arabera:

A: Eskuraketak, B edo I gakoa jarri behar denean izan ezik.

B: Inbertsio kolektiboko erakundeen beste akzio edo partaidetza batzuen eskualdaketa edo itzulketak dela-eta aurretik lortutako zenbatekoak berrinbertitzearen ondoriozko akzioak edo partaidetzak eskuratzea baldin eta lortutako ondare-irabazia edo -galera kontuan hartu ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 48. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat, salbu eta pertsona edo entitate akziodunak edo partaideak eskualdaketa-eskabidean egin badu Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den jakinarazpena.

C: Inbertsio-funtsetako partaidetzen edo SICAV indizeko akzio kotizatuen besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduaren 79. artikularekin bat.

E: Besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), salbu eta C, F, G, H, J, P edo Q gakoak jarri behar direnean.

F: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 48. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat lortutako ondare-irabazia edo -galera kontuan hartu ez den besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), salbu eta pertsona edo entitate akziodunak edo partaideak eskualdaketa-eskabidean egin badu Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den jakinarazpena.

G: «BAZKIDE EDO PARTAIDE MOTA» eremuan «C» gakoa jarri den eskualdaketa edo itzulketak, baldin eta barruko arau bat edo itundutako arau bat dela-eta salbuespenen bat aplikatuta atxikipenik egin ez bada, foru-agindu honen 8. artikuluan ezarritako prozedura bereziarekin bat.

H: «BAZKIDE EDO PARTAIDE MOTA» eremuan «C» gakoa jarri den eskualdaketa edo itzulketak, baldin eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 25. artikuluko 1. zenbakiko 3. puntuko f) letran ezarritako kargatasa aplikatuta atxikipena egin bada, foru-agindu honen 8. artikuluan ezarritako prozedura bereziarekin bat.



I: Inbertsio kolektiboko erakundeen beste akzio edo partaidetza batzuen eskualdaketa edo itzulketak dela-eta aurretik lortutako zenbatekoak berrinbertitzearen ondoriozko akzioak edo partaidetzak eskuratzea baldin eta lortutako ondare-irabazia edo -galera kontuan hartu ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 48. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat, akziodunak edo partaideak eskualdaketa-eskabidean egin badu Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den jakinarazpena.

J: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 48. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat lortutako ondare-irabazia edo -galera kontuan hartu ez den besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), baldin eta akziodunak edo partaideak eskualdaketa-eskabidean egin badu Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 35/2003 Legearen 28. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den jakinarazpena.

M: Sozietate edo entitateen funts propioen partaidetza adierazten duten baloreetatik datozen eta atxikipenaren peko diren harpidetza-eskubideen salmenta

P: Inbertsio-funtsak eta kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko sozietateak bat egiteko eragiketen ondorio diren trukaketa bidezko eskualdaketak, ondare-irabazia edo -galera kontuan hartu behar denean. Inbertsio kolektiboko erakunde xurgatuak jarri beharko du kodea, bat-egitea gertatu den ekitaldian, baldin eta aplikagarri ez bada Sozietateen gaineko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako araubide fiskala.

Q: Inbertsio-funtsak eta kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko sozietateak bat egiteko eragiketen ondorio diren partaidetzen eskualdaketak edo itzulketak, inbertsio kolektiboko beste erakunde bati eginiko intsuldaketa bati lotuak. Inbertsio-funts xurgatzailearen erakunde kudeatzaileak edo komertzializatzaileak jarri behar du gako hau, inbertsio kolektiboko beste erakunde bati eginiko intsuldaketari dagokion ekitaldian, baldin eta bat-egitearen ekitaldian aplikagarri bada Sozietateen gaineko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako araubide fiskala eta baldin eta intsuldaketa gertatzen den ekitaldian bat-egitearen datara arte sortutako errentaren zatiari aplikagarri ez bazaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko



13/2013 Foru Arauaren 48. artikuluko 1. zenbakian ezarritako araubide fiskala.

105-112

Zenbakizkoa

ERAGIKETAREN DATA

Eragiketa motaren arabera, partaidetzaren eskuraketaren data edo besterentzearen data jarri beharko da, edo harpidetza-eskubideen salmenta egiten den data.

Eremu honetan hiru azpieremu daude:

105-108 Zenbakizkoa: URTEA

109-110 Zenbakizkoa: HILA

111-112 Zenbakizkoa: EGUNA

113-128

Zenbakizkoa

ESKURATU EDO BESTERENDUTAKO AKZIO EDO PARTAIDETZEN KOPURUA / SALDUTAKO HARPIDETZA-ESKUBIDEEN KOPURUA

Eragiketa motaren arabera, bazkide edo partaide den pertsonak edo entitateak eskuratu edo besterendutako partaidetzen kopurua jarri beharko da, edo aitortuak saldutako harpidetza-eskubideen kopurua.

Eremu honetan azpieremu bi daude:

113-122 Zenbakizkoa. ZATI OSOA: akzio edo partaidetzen kopuruaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

123-128 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: akzio edo partaidetzen kopuruaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

129-141

Zenbakizkoa

ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZEAREN ZENBATEKOA

Eragiketa motaren arabera, adierazi behar da, zeinurik eta koma hamartarrik gabe, zein den bazkide edo partaide den pertsonak edo entitateak eskuratu edo besterendutako akzio edo partaidetzen zenbatekoa, edo aitortuak harpidetza-eskubideen salmenta dela-eta lortutako zenbatekoa.



Harpidetza-eskubideen salmentaren kasuan, adierazi behar da ea zer zenbateko jaso duen atxikipena egitera beharturik dagoen entitateak gero salmenta dela-eta aitortuari ordaintzeko, baina zenbateko hori kendu gabe beste gastu hauetan: entitate gordailuzainak eragiketagarik aplikatutakoak, halakorik egin bada, honako eremu honetan jaso direnak: «BESTERENTZE-GASTUAK/HARPIDETZA-ESKUBIDEEN SALMENTAK» (2 motako «Aitortuaren erregistroa» erregistroko 228-240 posizioak).

Baldin atxikipena egitera beharturik dagoen entitateak eragiketan parte hartzen badu, hala gordailuzain nola finantza-bitartekari gisa, jasotako zenbatekoa ez da murriztu behar entitateak gordailuzain gisa jardutean aplikatu dituen gastuen zenbatekotik, halakorik egonez gero, eta bai, ordea, eremu honetan: «BESTERENTZE-GASTUAK/HARPIDETZA-ESKUBIDEEN SALMENTAK» (2 motako «Aitortuaren erregistroa» erregistroko 228-240 posizioak).

Zenbatekoak EUROTan adierazi beharko dira.

Eremu honetan azpiero bi daude:

129-139 Zenbakizkoa. **ZATI OSOA:** Eskuraketaren edo besterentzearen zenbatekoaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

140-141 Zenbakizkoa. **ZATI HAMARTARRA:** Eskuraketaren edo besterentzearen zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

142

Alfabetikoa

ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZEAREN SORBURUAREN EDO JATORRIAREN GAKOA

Eremu honetan, akzio edo partaidetzen eskuraketa edo jatorria jarriko da, edo harpidetza-eskubideen salmentarena, gako hauen arabera:

D: Ondasun erkidegoak desagitea edo erkideak bereiztea.

C: Gauza erkidea zatitzea.

G: Irabazpidezko sozietatea desagitea edo ezkontzaren partaidetzako araubide ekonomikoa azkentzea.

M: Kostu gabekoa, heriotzaren zioz.



I: Kostu gabekoa, inter vivos.

F: Sozietateen gaineko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan jasotako araubide bereziari heldutako funts edo sozietateen bat-egitea. Bat egiteko prozesuan partaideak banantze-eskubidea erabiltzearen ondorio diren partaidetzen itzulketak ez dira sartuko gako honetan.

E: Ondare-irabazia edo atxikipenari zein konturako sarrerari lotu gabeko errenta, baldin eta aurreko gakoetan sartzekoak ez diren eragiketak badira.

H: Funtsak kapital aldakorreko inbertsio-sozietateekin bat egitea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan jasotako araubide fiskala aplikagarri denean.

Bat egiteko prozesuan sartuta dauden inbertsio kolektiboko erakunde guztiek jarri beharko dute gakoa.

Horrez gainera, funts xurgatzailearen entitate kudeatzaileak edo merkaturatzaileak inbertsio kolektiboko beste erakunde bati ondoren intsuldaketak egiten dizkionean ere jarriko da gako hau, baldin eta intsuldaketan eskuraketaren balio eta data fiskaltzat bat-egiteari dagozkionak hartzen badira.

J: Funtsak kapital aldakorreko inbertsio-sozietateekin bat egitea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluan jasotako araubide fiskala aplikagarri ez denean.

Bat egiteko prozesuan sartuta dauden inbertsio kolektiboko erakunde guztiek jarri beharko dute gakoa.

K: Inbertsio kolektiboko sozietateen akzio liberatuak ematea.

O: Beste kasu batzuk. Gako honetan sartuko dira aurreko gakoetan sartzan ez diren ohiko harpidetzak, erosketak, eskualdaketak eta itzulketak, bai eta atxikipenaren peko harpidetza-eskubideen salmenta ere.



Pertsona Fisikoen Errentaren Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 1. xedapen iragankorrek xedatutakoa aplikatuta ondare-irabazi bat lortu bada, «A» gakoa jarriko da.

Gainerako kasuetan, eremu hau zuriunez beteko da.

144-151 Zenbakizkoa

ESKURAKETA-DATA

«ONDARE-IRABAZI MURRIZTUA» eremuan (13/2013 FORU ARAUAREN 1. XEDAPEN IRAGANKORRA), «A» gakoa aukeratzen bada, eskualdatutako akzio edo partaidetzen eskuraketa-data jarriko da.

Eremu honetan hiru azpieremu daude:

144-147 Zenbakizkoa: URTEA

148-149 Zenbakizkoa: HILA

150-151 Zenbakizkoa: EGUNA

152-156 Alfamerikoa

ZURIUNEAK

157-170 Alfamerikoa

ERAGIKETAREN EMAITZA

«ERAGIKETA-MOTA» eremuak «E», «C», «G», «H», «M», «P» edo «Q» balioa hartzen duenean, bazkide edo partaide den aitortuaren akzio, partaidetza edo harpidetza-eskubidea besterentzeko eragiketari dagokion ondare-irabaziaren edo -galeraren zenbatekoa adierazi beharko da, dagokion gakoa jarrita.

Eremu honetan azpieremu bi daude:

157. ZEINUA: Eremu alfabetikoa.

Partaidetza edo akzioa besterentzeko eragiketaren emaitza ondare-galera bada, «N» idatzi behar da eremu honetan.

Bestela, hutsik utzi behar da.

158-170 ZENBATEKOA: Zenbakizko eremua.

Zenbatekoak euro zentimotan eman behar dira; beraz, ez da behar komarik.



171-174	Zenbakizkoa	<p>ATXIKIPEN ETA KONTURAKO SARREREN %</p> <p>«ERAGIKETA MOTA» eremuan, balioa «E», «M» edo «P» baino ez bada.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>171-172 Zenbakizkoa. ZATI OSOA: portzentajearen zati osoa adieraziko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>173-174 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: portzentajearen zati hamartarra adieraziko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p>
175-187	Zenbakizkoa	<p>ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO SARREREN ZENBATEKOA</p> <p>«ERAGIKETA-MOTA» eremuan, balioa «E», «M» edo «P» baino ez bada.</p> <p>Akzio edo partaidetzak edo aitortuaren harpidetza-eskubideak besterentzeko eragiketan eginiko atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.</p> <p>«ERAGIKETA-MOTA» eremuak «M» balioa hartzen badu, honako eragiketa honen emaitza izango da: «ATXIKIPEN ETA KONTURAKO SARREREN %» eremuan jasotako atxikipen-tasa aplikatzea «ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZEAREN ZENBATEKOA» eremuan ageri den zenbatekoari.</p> <p>Zenbatekoak EUROTan adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>175-185 Zenbakizkoa. ZATI OSOA: Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>186-187 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p>
188	Alfabetikoa	<p>EMAITZA MOTA</p> <p>Gako hauetariko bat jarri behar da:</p>



O: «ERAGIKETA MOTA» eremuan «E» kodea jartzen bada eta partaideak atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dagoen entitateari jakinarazi badio 47/2014 Foru Dekretuaren 96. artikuluko 2. zenbakian eta 48/2014 Foru Dekretuaren 17. artikuluko 3. zenbakian adierazitako inguruabarrak gertatzen direla (foru dekretu horien bidez, hurrenez hurren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Araudia onesten dira.

Jakinarazpen hori egiten den kasu guztietan erabili behar da gako hori, atxikipen-oinarririk ez dagoen kasuak barne.

R: Aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarrak gertatzen ez badira, R gakoa jarriko da.

189-201 Zenbakizkoa

ESKURAKETA-BALIOA

«ONDARE-IRABAZI MURRIZTUA» eremuan (13/2013 FORU ARAUAREN 1. XEDAPEN IRAGANKORRA), «A» gakoa aukeratzen bada, eskualdatutako akzio edo partaidetzen eskuraketa-balioaren zenbatekoa jarriko da.

Zenbatekoak euro zentimotan eman behar dira; beraz, inoiz ez da hamartarrik adieraziko.

202-214 Zenbakizkoa

ONDAREAREN GAINKO ZERGAREN BALIOA 2006

«ONDARE-IRABAZI MURRIZTUA» eremuan (13/2013 FORU ARAUAREN 1. XEDAPEN IRAGANKORRA), «A» gakoa aukeratzen bada, 2006. urteko Ondarearen gaineko Zergaren ondorioetarako eskualdatutako akzio edo partaidetzen eskuraketa-balioaren zenbatekoa jarriko da.

Zenbatekoak euro zentimotan eman behar dira; beraz, inoiz ez da hamartarrik adieraziko.

215-227 Zenbakizkoa

APLIKATUTAKO MURRIZKETA (13/2013 FORU ARAUAREN 1. XEDAPEN IRAGANKORRA)

ONDARE-IRABAZIA MURRIZTUA eremuan (13/2013 FORU ARAUAREN 1. XEDAPEN IRAGANKORRA), «A» gakoa aukeratzen bada, Pertsona Fisikoen Errentaren Zergari buruzko 13/2013 Foru Arauaren 1. xedapen iragankorrak aurreikusitako ondare-irabaziari aplikatutako murrizketaren zenbatekoa jarriko da.



228-240	Zenbakizkoa	<p>Zenbatekoak euro zentimotan eman behar dira; beraz, inoiz ez da hamartarrik adieraziko.</p> <p>BESTERENTZE-GASTUAK/HARPIDETZA-ESKUBIDEEN SALMENTAK</p> <p>Eremu hau bakarrik bete behar da harpidetza-eskubideen salmentaren kasuan («M» gakoa «ERAGIKETA-MOTA» eremuan), eta, halakoetan, jasota utzi behar da zein den besterentze-gastuen zenbatekoa, aitortzaileak entitate gordailuzain gisa egin dituen eragiketen gastuei dagokiena.</p> <p>Zenbatekoak EUROTan adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>228-238 Zenbakizkoa. ZATI OSOA: Besterentze-gastuen zenbatekoaren zati osoa jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p> <p>239-240 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA: Besterentze-gastuen zenbatekoaren zati hamartarra jarriko da. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.</p>
241	Alfabetikoa	<p>KIDEAK/PARTDAIDEAK EGINDAKO ORDAINKETA</p> <p>Eragiketak atxikipenik edo konturako sarrerarik ez badu, Pertsona fisikoen errentaren gaineko araubidearen 83.2. eta 106. artikuluetan eta Sozietateen gaineko araubidearen 52. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez kideak edo partaideak kontura egin beharreko ordainketa aplikatu behar delako, eremu horretan, «X» jarriko da.</p> <p>Gainerako kasuetan, eremu horretan ez da ezer jarriko.</p>
242-389	-----	<p>ZURIUNEAK</p>
390-430	Alfanumerikoa	<p>FUNTSAREN IZENA</p> <p>Funtsaren izen osoa idatziko da.</p>
431	Zenbakizkoa	<p>EUROPAKO FUNTSAREN MOTA</p> <p>Martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauaren 4., 5. edo 6. artikuluan aipatutako Europako funtsa bada, honako gako hauetako bat erabiliko da:</p>



1: Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsa.

2: Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsa

3: Ekoizpen-kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsa.

432-500

ZURIUNEAK

*Zenbateko guztiak positiboak izan behar dira.

*Edukirik gabeko zenbakizko eremuak zeroz bete behar dira.

*Edukirik gabeko eremu alfanumerikoak/alfabetikoak zuriunez bete behar dira.

*Zenbakizko eremu guztiak eskuinean lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.

*Eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokatu behar dira, eta eskuinaldea zuriunez bete. Letra larriz idatzi behar da, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan besterik azaldu ezean.